



# INFANTIL EDO BEHERAGO KATEGORIAKO KIROLARIENTZAT FEDERAZIO-LIZENTZIA IZAPIDETZEKO BAIMENAK – INFORMAZIO GARRANTZITSUA

## LEHIAKETARAKO LIZENTZIAREN LEHENENGO ESKAERA

Infantil (haurrak) kategorian edo beheragoko kategorian dauden eskola-adineko kirolarientzat federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko, ezinbestekoa da aldeztu aurretik Bizkaiko Foru Aldundiaren **berariazko baimena** lortzea.

2325/22 Foru Aginduak ezarritako epeak kontuan hartuta, onespren-formularioak Bizkaiko Hipika Federazioan aurkeztu behar dira, federazio-lizentzia eskatu baino **45 egun lehenago gutxienez**.

Baimen horiek **denboraldiaren hasieran edo denboraldia hasi aurretik** (abenduan) aurkeztea gomendatzen da, baimenak ematerakoan arazorik ez izateko eta lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko.

Gomendatzen da klub edo kirol-elkarte bakoitzak bere adingabeen gurasoen/tutoreen baimen **guztiak batera** aurkeztea denboraldiaren hasieran edo aurrekoaren amaieran.

Horretarako, gurasoek edo legezko ordezkariak Bizkaiko Hipika Federazioaren web orrian eskuragarri dagoen baimen-inprimakia bete behar dute:

<https://fbizkainahipika.eus/adingabeentzako-baimenak/> eta, klubaren bidez edo banaka, Bizkaiko Hipika Federazioa bidali, [info@fbizkainahipika.eus](mailto:info@fbizkainahipika.eus) helbide elektronikora, **gutxienez Galope 2**-ren jabe dela egiaztatzen duen agiria erantsita.

**Ez da federazio-lizentziarik eskatu behar BFaren baimena lortu aurretik.**

**Baimen hori federazio-lizentziaren eskaerarekin batera aurkeztu behar da.**

**Galope 2 gutxienez ez duten adingabeek ezin izango dute lehiaketa-lizentziarik eta baimenik eskatu helburu horretarako.**

Ahal den neurrian eta izapideak arintzeko, klubek 2024. denboraldirako aurreikusita dituzten baimenak Federazio honetara bidaltzea gomendatzen da, **aurtengo urtea amaitu baino lehen**, BFara lehenbailehen bidali ahal izateko.

Bizkaiko Hipika Federazioak 15 egunean behin aurkeztuko dizkio eskaerak BFari, eta interesdunei horren berri emango die emandako helbide elektronikoa.



## FEDERAZIO-LIZENTZIA BERRITZEKO BAIMENA - **BERRIA!**

Baimen hori 2023an lortu bazen, 2024rako, federazio-lizentzia berritzeko eskaera jasotzean, Bizkaiko Hipika Federazioak horren berri emango dio automatikoki Bizkaiko Foru Aldundiari, eta, beraz, ez da formularioa berriro bidali beharko.

### DATU GARRANTZITSUAK

Adingabeentzat federazio-lizentzia edo txartela formularioan eskatzen den zaldiketa egiteko amaren/aitaren baimena **EZ** da BFA baimentzeko formularioaren baliokidea.

Lehiaketako federazio-lizentzia lortzeko Eusko Jaurlaritzaren 125/2008 Dekretuak ezartzen duen **gutxieneko adina** benjamin kategoriako lehen urteari dagokiona da. 2024an, honako hau izango da: abuztuaren 31ra arte - **2015. urtean jaiotakoak** eta irailaren 1etik aurrera - **2016. urtean jaiotakoak**.

Euskadiko Hipika Federazioaren araudiaren arabera lehiaketarako lizentzia lortu ahal izateko, ezinbestekoa da **Galope 2 gutxienez** izatea.

Bizkaiko Hipika Federazioa da BFARI baimenak eskatzeko eskumena duen erakunde bakarra, eta horregatik jo behar da bertara edozein izapide egiteko.

Javier Alonso Llano

Presidente/Presidente

Bilbon, 2023ko abenduaren 12an